

"Irunberri, 1990: Arroilaren negarra" liburua aurkeztu da Donostian

2023/04/21



(Arg: naiz)

Asteazkenean Santa Ana aretoan herri mailako aurkezpena egingo da

Cure Bazterrak elkartearen eskariz egindako ikerketatik sortu den liburua da goizean Donostiako Koldo Mitxelena Kulturgunean aurkeztu dena. Irunberriko arroilan 1990eko ekainaren 25 eta 26an gertatutakoak jaso dira liburuan, Susana Arregi oñatiarra eta Jon Lizarralde andoaindarra hilik eta German Rubenach iruindarra larriki zaurituta agertu zireneko gertaerak. Egun gutxira, beren buruaz beste egin zutenaren bertsio ofiziala zabaldu zuen Corcuera ministroak. Baina bertsio ofizial askoren atzean giza eskubideen urraketa larri ugari ezkutatu direla esan du liburuaren aurkezpenean *Egiari Zor* Fundazioko kide Pilar Garaialdek.

Corcuera eman zuen suizidioaren bertsioa justiziak berak bertan behera utzi zuela argitu du Pako Aristi idazleak, Rubenach-en kontrako epaiketan Arregiri tiro egin izana frogatzeko oinarriak ez zegoela ondorioztatu baitzen.

Lagun askoren ikerketa oparoari forma ematearen arduradun gisa azaldu da Pako Aristi gaurko aurkezpenean. Eta egia argitu asmoz, bertsio ofizialaren aurrean beste bertsio alternatibo bat osatu dutela esan du.

Erein argitaletxeak kaleratu du *Irunberri, 1990: Arroilaren negarra* liburua. Nobela baten antzera arin irakurtzen den lana ikerketa lana sakona dela aipatu du Uxue Razquin editoreak.

Gaur Donostian presentatu den liburuaren aurkezpena Oñatin ere egingo da, asteazkenean, Santa Ana aretoan, 19:00etan.

Iturria: Oñati Irratia



2023/04/21

Udaleku irekietan, Arte udalekuetan eta Uda kanpainan begirale izateko aurkeztutako onartu eta baztertuen zerrendak argitaratu dira



2023/04/21

Debagoienako EAJK hautagaien aurkezpena egingo da arratsaldean



2023/04/21

Oñatiko PPK co-living eta co-working guneak sortzea proposatzen du, gazteek emantzipazeko aukera izan dezaten



Harpidetu boletinera

Jaso emailaz Oñatiko albisteak astean behin!

Eposta

HARPIDETU